euskal - eŕia

¡Jesus Aurtxuari!

Jose Santua eta Maria naigabeturikan daude;
Ibili dira galdetu eske gaueko etxez-etxe:
Belen'en danak biyotz gogoŕak, iñork eman eztiote.
Azkenez biek, antxen estalpe batera joan dirade.
Zeru goitikan bere Semea bialdurik Jaungoikoak.
Gau pozkariya onetan jayo bear du Jesus Aurtxuak:
Guazen bada pozez biterik, aberats ta beartsuak,
Danak Belen'en entzun ditzagun ango abesti gozoak.
Aberetegi batean Jesus, eskalearen antzera,
Gauza guztiyen Jabea, lasto gañean jayoko zera:
Iru Erege laxter etoŕiko zaizkitzu Belen'era,
Urea, mira ta intsentsuakin, Aurtxua, Zu agurtzera.
Ongi etoŕi, ongi etoŕi, gure Zeruratzalea;
Beti garbiya dan Maria ta Jaungoikoaren Semea;
Txit aberatsa zerade, baño eundinairikan gabea;
Zuk jayotzeko eztezu autu goi-malako Jauregia.
Aingeru asko etoŕi dira Zerutikan Belen'era
Erege danen Erege zeran Jaun oŕi abestutzera:
Artzayak beŕiz mendtik datoz, Jesus Auŕa, Zu ikustera,
Eta artaldeko arkumerikan ederenak ematera.
Lau mila eta geyago urte Zure begira gaudela,
Zorionean Jaungoikoaren Semea etoŕi zera
Loturik dauden pekatariak pekatutik askatzera:
Jesus Aurtxua, Zure bitartez gu zeruratuko gera.
Ondarabi'n. URBIÑENEA'KO ITXUA.

Agate - Deuna'ren olerki txapelketa

ARAUDIA:

1'gna. Ondaŕoa'ko Euskeltzale-Bazkuna'k euskera-aldez jokatu naiaz olerki txapelketa au eratutzen du.

2'gna. Edozein euskeldunek aurkeztu lezazkike bere olerkiak txapelketa onetara.

3'gna. Olerkiak, "Ainbizaldu daigun Agate Deuna" abesti eresiarekin abestutekoak izango dira.

4'gna. Olerkiak amar gutxienez izango dira.

5'gna. Olerkiak edozein izkelgitaikuak izanda ere, Arana Goiri'tar Sabin'en izpiakerakin idatziak bierko dute.

6'gna. Olerkiak, Euskeltzale-Bazkuna'k izendatutako iru epaillek epaituko dituzte.

7'gna. Olerkiak, izenorde batekin bidaldu bitez eta idazkian bertan eta beste idazkazal baten barŕuan egilearen izena.

8'gna. Olerkiak, zuzenbide onekin bidaldu: "Euskeltzale Bazkuna" (Olerki-Txapelketa), Puerto, 10, Ondaŕoa.

9'gna. Sariak: lenengua, 40 laurleko ta bigaŕena 20 laurleko.

10'gna. Sariketa onetara aurkeztuko diran olerki guztien jabe Euskeltzale-Bazkuna geratuko da.

11'gna. Olerkiak ila onen 15'gaŕenerako bidaldu bitez.

ONDAROA'KO EUSKELTZALE BAZKUNA

BASERRITARRENTZAT

Legazpi'tik.

Baseŕitaŕen artean zer esana pranko sortu dute oraingo ontan. Amaika itz egin da beren artean, Udal edo Ayuntamentuak sartu geran urterako eratu duan, Legazpi'ko eŕiak izango dituan gastuaren "presupuestoa" dala eta ezdala. Amaika itz oyetatik ordea, amar ta erdi alpeŕak izan dirala esango nuke. Au da, zuen, baseŕiren zinizotasun eta us'e ona burruan dutela, baten batzuek ibili dira "presupuesto" ortan sartzen ziran gauzak, ta batez ere, zeri etzirala beaŕezkoa esan zizutenak, bidezkoak eta beaŕezkoak dirala ondo jakin aŕen, beste aldera itz egiten. Agian, oyek kaletaŕak asmatutakoak dirala, baseritaŕen bizkaŕetik kaletaŕak sosegaz egoteko eta abar esanaz.

Ta, baseŕitaŕak jakiña, beste edozeñek bezela, bear ez dan gauzarik eŕiak ez duala ordaindu beaŕik "aŕazoiakin" esan zuten. Ta era ortan Udalera idazki bat bialdu zan, baseŕitar askok izenpetu edo "firmatuta". Eta egia esan, izenpetu etzuten beste baseŕitar askoren "firmak" ere ba ziran idazki edo "paper" artan. Ta, ez baseŕitar eta ez legazpiaŕen kutsurik ez dutenen izenak ere bat baño geyago azalduko nituzke. Baño gaur ez naiz orta nasi, ta noan lengora.

Nik galdetuko diet orain oŕi ura izenpetu zuten guziai: ¿ba al dakizute, ta nundik "presupuesto" ortan sartzen diran, bigaŕen aguazila, "aministradorea" eta abar beaŕezkoak diran ala ez? Eta ziur nago, "firmak" biltzera joan ziranak esandakoa besterik ez diazutela erantzungo.

Ta, "firmak" biltzen ibili ziranak esaten zutena ¿ez al zan egia?, esango dezute orain. Ezetz esanda ez diazute sinistuko, baño esaten dizuetenean zuen "firmak" biltzen ibili zan ayetako batek, berak etzuala "firmatu" idazki ura eta besteak balio etzuan paper batean jaŕi zuala bere izena, ezin ukatuko diazute au dala egia. Eta orain esan detan guzia, nai badezute ikusi dezakezute idazkian begiratuta, nik ikusi detan bezela.

Oŕegatik bada, auŕerago esaten zuan egin diran amaika itzetatik, amar ta erdi alpeŕak izan dirala; etzirala bidezkoak. Ta bidezkoa etzalako Udal edo Ayuntamentuan ere baztaŕen bola beaŕean izan dira, ez baseŕitaŕak egiña zalako, legearen azpin etzegoalako baizik.

Au ikusi ondoren, baseŕitaŕen batzuek izango dira esango dutenak: ¿Zertarako bear diek kalean aguazil bat geyago; eta zertarako "aministradorea"; eta beste gauz geyago zertarako? Bai, kaletaŕai beti geitzen eta gu beti len bezela. Irud'pen auxe argi azaldu gogoakin ekin diot lenengotik, baño azkenera iritxi naiz; ez det ordea, oŕetzaz zerbait esan barik bukatu bear.

Ez da oraingo auxe itz gutxitan azaltzeko gai eŕeza. Zeon arteko, baseŕiko gora bera bat jaŕiko dizuet ispilutzat.

Esate baterako, baseŕiko nagusi oso aberats batek artalde asko ditu; ta artalde bakoitzean artzai bat. Baño gertatzen da artalde bat urte gutxi baŕu asko geitzen zaiola eta jakiña, artaldea lenengotik baño, bi edo iru aldiz aundidago arkitzean, artzai batek, guziak ezi nditu zaitu. Orduan, bear bezela artalde ori zaitu eta tajutzeko bide bat du. Beste artzai bat jaŕi, naiz da beste artaldeak len bezela jaŕaitu.

Legazpin ere auxe gertatu da. Azkenengo urteetan, Jainkoari eskertu bear diogun lanaren bitartez, kaleko artaldea ikaragaŕi geitu da. Oŕegatik, bera ondo zaitzeko (ta gañera legeak ala agintzen dute) artzai geyagoren bear giñan, naiz da besteak len bezela jaŕaitu. Au izan da ba, orain eŕiko gora berak ibiltzeko gizon batzuek geyago Udalak izentatzea. Ez kaletaŕen gogozkoa, eŕiaren beaŕezkoa baño.

Eta orain norbaitek esango du: ¿¿ora bera oyek ibi'zeko lengoak ez aiziran naikoa eta geyegi? Ez. Eta au ere egia dala laister ikusiko dezute. Begira zazu gure auzo eŕietan zenbait ordaintzen diran, eŕiko gora beratarako jaŕirik dauden gizonak. Ondorengo ordaintza oetan ez dira sartzen ezsendag'le edo "mediku", "botikario", eta ez idazkari edo "sekretariorik".

Zumaŕaga'n: 14.485 laurleko.
Uŕetxu'n: 8.784 laurleko.

Zenbaki oek joan dan urtekoak dira ta aurten ziur asko jaso egingo zituzten. Legazpi'n orain arte 3.765 laurleko ordaindu dira eta auŕerakoan 9.200 laurleko.

Beraz, argi ta garbi ikusi dezute bidezkoak dirala presupuestoan" jaŕi diran zati oek; ta au guzia ba zekiten zuek izenpetu zenduten idazkia egin zutenak, baño, ala ta guztiz ere zueiri beste alde batera agertu dizue. Zer asmo obe zuten bada, bidezko diran gauzak kaltegaŕi bezela agertzeko?

Gai au ere ez da ixilik gordetzekoa, baño gaurkoa luze dijoakit eta beste baterako utzi bear.

Olari

Goierri

Agur, eta urte beŕi on "Luzear" eta Euskal oŕiko idazle eta irakurŕe denori.

Poz eta alaitasuna beteta gelditu nintzan lengo igandean, zuk "Luzear", "Lasarte'ko nekazari bati" zidiozunagatik, esatean, guŕe izparingi kutuna dan EL DIA'ren Euskel atalean igandero, idatzi biar litzakeala nekazari arazoaz. Nik, baseŕitaŕetan ez jakiñena naizen onek, poz aundiarekin agintzen dizut "Luzear", alegin guzia egingo detala zerbait idazteŕ, baldin beren trakets eta baldarkeriaren gaindik, diña badira izpaŕingi txutzan ortan agertzeko; baño esaten dizut aurŕetik, gurakientzat lau aundia izango dezula.

Aspaldi ontan neguan esanen gauza egokia izango litzakeala nekazari arazoak argitaratzea, eta nola ez argitaratu? ¿Ez aldu gaŕantzirik, Gipuzkoan diran amaika mila sendi baseŕitaŕen esku artean ibiltzen diran arazoak argitaratzea? Zein da, Gipuzkoan langile mota bat, oŕenbeste sendi dituana?

Datozela bada, euskal idazleak, naiz baseŕitaŕak eta naiz kaletaŕak, argitaratuko dituztenak, zer diran baseŕitaeŕn eskubideak Aldundegi edo Diputazioan, Udal etxe edo Ayuntamentuetan, zer "Matadorietan, zer Beterinarioakin, zer Sindagileakin, zer gure nagusiakin eta zer mendekoakin. Zer dan eta zertarako dan, gaur ain indar aundia artu duan "Gipuzkoako Nekazarien Alkartasuna", zer eskubideak diagun orain Tolosan jaŕiko dan "Jurado mixto'an", zeintzuk diran bera antolatuko dutenak, eta baita ere zein eŕitan eta nola, zein diran, baseŕitaŕak dituzten gauzen salneuri edo "prezioak" eta orela, argituaz baseŕitaŕen adimen ilunak, gu ere iritxi gaitezen gizartean bear degun malara, bada gaur arkitzen gera besteak baño mala extaxagoan, eta iritxiko gera gure alderdia ezagutzera eta ezagutu eta ondoren zaitzera.

Eztanda

Lasartear nekazariai nitzaz berbera diotset zuri ere: Bosoak zabalik naukazu. Iñork irakurtzekotan zuek, nekazari ta aŕantzale jatoŕak irakurtzen dezute gure Euskal Oŕi maite au, ¿nola ez ba zuen arazoak pozpozik argitaratu? Zure idazki guziak (¡ala uste dit beinizat!) argitaratu ditut, ta auŕera, jakin, zuenak iñorenak baño lenago azalduko dirala, bai nekazari ta bai aŕantzaleenak. Ia ba igandero zer edozer moldatzen degun.

Luzear

Asteasu

—Kaxo, Txomin.
—¿Zer diozu, Pelo?
—Emendxe naizela.
—¿Asteasu aldetik e?
—Ala esateue.
—Ederki, ederki.
—¿Etxian danak ondo?
—Bai, Jaunari eskeŕak.
—Asko poztutzen naiz.
—Gañeakuan, sealyo puxka bat ibiltzeimue bien zorioneko abertzaletasunakiñ. Kalista ta Alponsiñuakin...
—Ja ja!... ¿Karlistak eta Alponsiñuak e bai?
—Bai gizona. ¡Eria giro izaten, gure etxian!
—¿Eta emenguak oso ixildu aitziran, Pelo?
—¡Bai naikoa esanda gero! ¡Bera ur baluteke, inaguraziona, beste gizajon batzuk berganatzeko Abeŕiaren aurka zumatzen duten guzkia esanazi!
—¡Nayo nin emen izan banitz egun artan entzutera justeko!
—¿Ulsiko altaizuten?
—¿Ze ba?
—¿Ze ba? Neroni esnitzan eldu araño, baño baziran noski andereñoak, ariñ asko atereak. ¡Bazkide etzanik etzutela uzten da!
—Kartelen bat eukiko zuten. Bazkidentzat bakarik zala esaten zuana. atian.
—Ez, gizona, ¡oŕelakoak dira emengo katoliko izeneko oyek! Dizkiyotenai utzi eta kalera gañerakoak.

Baño jaun oyek ez uste aŕen... baziran bazkide etziranak, eta izan nai eztutenak ere bai, belariak tente asko zitoela egondakoak. ¡Au da lana au! Txamaŕa denai biren aldera jantzi nai... Baño... etzan iñusente eguna, denai sinistu aziteko.

Eta berak ondo asko dakite, Euzkadi, guk abertzaliak jaŕitako izena ez dala ,eta oyek lagunduta aŕotu gerala ere ez. Esan balute berak zapaldu dutela, Euskal Eŕia, egiya esango zuten.

—Afazoi dezu, Txomin, baño etzaitez estutu. Lokaztartian iya itxian egon bagera ere, lokaztartetik atera gera. Oraiñ garbitzia falta degu. Eta esan diyogun oraiñ argiro:

Euskal eria beti izan dala,
España baño lenago,
Españatafak gu geradela
diona zentzuz ez dago
¿nolaz alaba izan liteke
ama baño ere lenago?

—Bejondaikizula Pelo. Esanak esan da, ufuna arte.

Agur.

TXORTU

Sucesos

LADRON DETENIDO

La Policía ha detenido a Ruiz Rodríguez a quien se suponía autor del robo cometido en la noche del 21 de diciembre en la tienda de muebles propiedad de don Angel Pérez Pascual, en colaboración con Leonardo Pinedo y otro sujeto.

Para efectuar el asalto utilizaron una palanqueta que robaron en una carpintería.

De la tienda de muebles se llevaron dos gramófonos y 24 plumas estilográficas que vendieron.

UNA REYERTA

Comunican de Segura que por cuestiones de poca monta, riñeron en la carretera de Cegama los vecinos Cosme Aristimuño Urquiola y José Múgica.

Después de cambiarse unas bofetadas este agredió a aquel con una vara, produciendo diversas lesiones de carácter leve en diferentes partes del cuerpo.

I. LABAYEN
ESPECIALISTA
ENFERMEDADES DE PULMON
Alameda, 7; Teléfono 15.369
SAN SEBASTIAN

--Ama, ¿bai aldezu Ama Arantzazu'ko Birjiñaren txokolatia, neri gustatzen zaitena?
--Bai, semetxua, ba daukat; ¡nola ez nuen ba ekaŕiko zuentzat!

Deba

AGUR. — Igaro zaigu 1933 urtea. Urte zoriontsuba Eusko alderdi edo Euzkadi'ko seme zintzoentzat. Erakutsirik bene-benetako maitetasuna euren ama bakar dan Euzkadi'ri ¿eta noletan ez oroiturik Azila'ren 5'an eta baita ere 19'n ospatu ziran auteskunde akin? Oinperaturik gure arerio guziak "txistera" laban, eta "pistolero" guziak... Oroimengaŕia JEL alderdientzat 1933'gaŕen urtea. Aŕera eman diogu 1934 urteari, eta eman zaiogun zorionak, bada berau izango da gure abeŕi bakar Euzkadi'rentzat urterik zoragaŕiena, azkatasuna ostu ziguten ezketiñok Madril'ko gosetiak. Bada lege zar maitagaŕiak gereganatuko ditugu laister, bada Eusko Araudia'rekin eltzen gera leenngo malara, eta ondoren esango degu geure abeŕien azkatasun osoa. Zoriontsuba izan zaitez 1934'gaŕen urtea.

ANTZERKI JAIA. — Datoŕen larunbatian egingo dute emengo gazteak antzerki jai polit bat antzezturik "Aterako gera" eta "Goi Maitasuna" iluntzeko 8 ta erdietan. Dei egiten zaitzube abertzale guziei egun ontako, txalotubak izan ditezen gure gazteak eta batez ere euren irakasle dan Agiŕe'tar Todor ospetsuba.

Igandean izango ditugu Mendaro'ko antzezlari bikañak, bada gai onetzaz gaiñ, itz egitera etoŕi ta emen agurtu degu euren lendakari dan Agiñarte "Aranetako" maiorazgo jauna. Onek antzestuko dute "Maitasun eta boroto" bi ataletan, bigaŕen "Moroi jatoŕa" atal baten. Itxaropena badet onek ekustera oste aundia etoŕiko dala ikusirik nortzuk diran, bada eldu diran uri guzietan oso txalotuak izan dira. Asiera emango zaio 8 ta erdietan.

ERIOTZA. — Gaixo luzaro egon ondorenian il zaigu Ikurtonak eta Doiburuaren onespena artuta Arteondoaga'tar Binjen G. B. Asioko bazkidia. Laguntzen diogu euren naigabian bere sendikuari, irakurle otoitz bere aldez.

PERIA. — Urtebeŕiko peria ospatuko da ostiralian larunbatian jai dalako. Bertan ospatuko dira ganadu proak eta abar, eusko soñua ere izango degu ugari.

BURNI BIDE

Granja Avícola
BELATXARA
TELEFONO 379 OÑATE



Razas Rhodes Island Castellana, Negra, Leghor, Blanca. Huevos para incubar. Polluelos de un día desde una peseta. Nacidos en la famosa incubadora eléctrica americana "Petersime".

NOTA: No se reciben pedidos menores de 25 polluelos.

Errera-Altza

AGURA. — Naiz berandu xamar (atzeratuta biziltziak egiten du) agur Euskal Oŕi ontako zuzendari dan "Luzear" jaunari eta irakurle guztioiri, urte beŕi on bat opa lzanez.

ANTZERKI JAYAK. — Askoren kezkak oraingo onekin amaituko dira. Alegiya aspaldiko ontan, iya iru ilabete, ez dala Eŕera'ko Batzokiyan antzerkirik izan, eta ia zer asmuetan dauden bertako antzezlariyak edo zuzendariyak ziyoten eŕeratar-altzataŕak.

Ezagutzen dute lo ez daudela, bada beren jakiñen gañian da izanak dirala Pasai San Pedro'n eta Lezo'n, baña beren eŕikuakin aztuta ote dauden edo...

Gañera, diyotenez, oso ederki egin omen zuten eŕi oyetan, eta pixka bat "aŕo xamar" daudela uste det beren "tournée" ori egin ondoren.

Itxaropena ba degu len oitu gaituzten bezela, oraingoan ere oso ederki egingo dutela.

Eta antzezlariyen au onela izanik, antzerkiyen gaiñ zerbait esatia bidezkoa iduritzen zait.

Ez dute txantxetakoa egokitu: "Oleskari biyak". Abertzaletasuna du arazoa maitasuna tartean duela.

Abek ola izanik iduritzen zait datoŕen larunbatian Eŕege eguna, gure Batzokiya bete-betia ikustia.

Antzerki jai onek asiera izango du arratsaldeko 8'tan eta saŕerak betiko tokiyan arkitu leizke.

ITANI

EL PUNTO DE REUNION DE LOS MEJORES GASTRONOMOS ES EL RESTAURANT BAR

DANA-ONA

SAN MARTIN, 29

Donde se sirven los platos más exquisitos y los más clásicos del País
Los mejores vinos y los licores de las marcas más acreditadas
Refrescos y aperitivos especialidad de la Casa

Restaurant Rodil

CARTA Y PRECIO FIJO
F. CALBETON, 21 :-: ESTERLINES, 8

Academia de corte

y confección Parisién. En esta Academia se enseña a cortar y confeccionar toda clase de prendas de señora y caballero, corte muy moderno, no conocido en esta localidad. Se sacan modelos sobre medida. Profesora, señorita S. Martín. Usandizaga, 7, primero, izquierda.

LA LEGITIMA SALAMANDRA SOLAMENTE LA VENDE LA CASA DE POLICARPO DIEZ, EXCLUSIVA DIRECTA PARA GUIPUZCOA, ALAVA Y NAVARRA

CALEFACCION, la mas agradable, higienica, economica y elegante es la salamandra "E. CHABOCHE"
Duración de carga 24 horas
Venta, Instalación Reparacion y piezas de recambio
POLICARPO DIEZ
Miracruz 4, 6. TELÉFONO 11.792
SAN SEBASTIAN
Desconfiar de las imitaciones y exigir siempre la autentica SALAMANDRA E. CHABOCHE

Rapidez - Resistencia

Son dos factores que deben tenerse en cuenta al adquirir máquinas de escribir...

MERCEDES - EXPRES

reúne éstos, más otras ventajas muy prácticas por lo que le interesa adoptarla

Pida una de prueba a

LA OFICINA MODERNA - **Easo, 4** - San Sebastián